

Ihesi

IHINTZA ERREMUNDEGUY

Euskal Herria ezagutuz: **Bastida (Nafarroa Beherea)**

Lerro zuzenak Historiaren lekuko

Nafarroa Behereko ipar-mendebaldean kokatua da Bastida, Lapurdirekin mugan. Herri ederra, erakunde publikoek ere hala aitortua diote. Arkitektura berezia utzi duen historiaren jabe da artisauen hiriburu txiki hau.

UDAZKENEKO asteburu epel batez Bastidara hurbiltzea herrixka polita ezagutzeko aukera ona izan daiteke. Hazparne, Bidaxune, Urketa, Bardoze eta Aiherrak inguratzen dute Bastida. Mila biztanle eskaseko herria, Frantziako herri ederrenetakoen zerrendan sailkatua. Horiek horrela, bere irudia eta 700 urteko historia zaintzen ditu Bastidak. Iruñetik 40 bat kilometrora dagoen

Villapuerta herriarekin bizki egina da hiru urtez geroztik. Trukaketa kultural, turistikoa eta kirol arlokoak egiten dituzte bi herriek.

Herriaren bisita komentatua egin daiteke gidei esker, eta bertara joateko autobusak ere badira. Uda guztian zehar gaueko baserritar merkatuak antolatzen dituzte ostiralero, arratseko zazprietatik hamarretara, Arku plazan. Bertako ekoizleak bil-

tzen dira eta axoa, piperrak, baratzeak, ahate konfitak eta foie grasa, xingarra, idi txistorrak, ardi gasna... proposatzen dute.

XIV. mendeko bastida nafarra

Bastida Louis I.a nafarrak sortu zuen 1312an, gune estrategiko bilakatzeko xedez. XIII. mende hastan, Nafarroako erresuma kostatik, gaur egungo Gipuzkoatik,

Arkitektura berezia izaten dute bastidek, eta Baxenabarreko Bastidak ere hala du. Eraikinak eta baratzeak perpendikularki jarriak dira.





Ezkerreko argazkian, Notre Dame de l'Assomption eliza, XVIII. mendera arte nafar agintarien hainbat biltzarren lekuko izandakoa. Eskubian, artisaua lanean. Guztira hamabost dira herrian.

uxatu zuten eta horrela itsasorako bidea galdu zuten. Orduetik, Aturrirekiko eta Baionako portuarekiko lotura ezinbestekoa bilakatu zen. Bastidak Nafarroako erresumari itsas bide bat ahalbidetu zieziao-keen, herria zeharkatzen duen Aturriren Joyeuse ibaiadarrari esker.

Arkitektura berezia

Bastida batek arkitektura berezia izaten du, bide erregular bat errespetatzen baitu. Hala, Bastida herria portu zaharretik elizara doan ardatz nagusiaren inguruan egin da. Eraikinak eta baratzeak perpendikularki jarriak dira eta denek neurri bera dute. Biztanle berri bakoitzari lur sail bat ematen zioten, "plaza" izenekoa. Bertan etxea eta *cazalot* deitu baratzea eraiki behar zituen. Karrikek angelu zuzenean mozten dituzte lur eremu horiek, eta karrika nagusia eremu zabalago batez has-

ten da: Arku plaza. Hastapenean merkatu plaza izan behar zuen, gaur egun, plano horiek zehazki kontserbatuak izan baitira.

Notre Dame de l'Assomption eliza

1315ean egin zuten harrizko eliza, auzotik urrundua, bastida gehienetan bezala. Elizak funtzio berezia zuen. Nafarroako agintariak elizako kalostrepean biltzen ziren heritik iragaitean. Azken biltzarra 1789an egin zuten, eta orduko hartan Bastidak Frantziako erresumari lotzea erabaki zuen.

Hilerrri israeldarra

XVII. mende hastapenean, judu serafatak Inkisizioari ihes eginez Espainia eta Portugaletik joan ziren, eta Bastidara sartu. Estatutu aski autonomoa zuten juduek bertan. Hori bai, herriari mediku eta apotikario bat eskaini behar zizkieten. Historiaren garai horretatik,

gaur egun, hilerrria eta abizen batzuk baizik ez dira gelditzen.

Artisautza herrian

Badira Bastidan hamabost artisau. "Gaur egun objektu formatatuen ekoizpen aroan gara", dio J. Pineauk, arte artisauen elkarteko lehendakariak, "batez ere industriari dagokionez. Bastidako munizipalitateak, azken hogeitun urte hauetan, artisauak instalatzen lagundu ditu. Horien etika sorkuntza segurtatzea da, dibertsitatea eta materialen noblezia bermatuz. Beren dendak Arku plazaren inguruan dira, Darriex baserrian, eliza ondoan eta inguruetan. Urte guztian zehar irekiak dira tailerrak. Izan kuriosak, pusa atea eta ongi etorriak izanen zarete". Irailaren 13 eta 14an Euskal Herriko Buztin merkatua izaten da Bastidan. Frantziako eta Europako 50 bat buztin gile hurbiltzen dira herrira eta haien lanak erakusten dituzte. ■



Jarrailu Iparraldeko Bertsulari Xapelketa ARGIAK:

- Kanporaketen kronikak argia.com-en
- Joxemari Ostolazaren erreportajea astekarian

Bertsu

argia